Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

3217

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 23koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (149/2011 prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (149/2011 prozedura laburtua) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko martxoaren 2 Ebazpenaren kontra aurkeztu da; ebazpen horren bitartez, 2008ko urriaren 30eko Ebazpenez (azaroaren 24ko EHAA, 225. zk.) deitutako Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizial kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratu zen. Eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkaute, 2011ko maiatzaren 23a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3217

RESOLUCIÓN de 23 de mayo de 2011, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo al procedimiento abreviado 149/2011, que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz.

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado 149/2011) identificado en el encabezamiento, contra la Resolución de 2 de marzo de 2011 de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se hace pública la relación definitiva de personas admitidas y excluidas al procedimiento selectivo para ingreso en la categoría de Oficial de la Escala de Inspección de la Ertzaintza, convocado por Resolución de 30 de octubre de 2008 (BOPV n.º 225, de 24 de noviembre), y habiéndose solicitado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 23 de mayo de 2011.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
ELENA MORENO ZALDIBAR.